

# EIZIE



EUSKAL ITZULTZAILE, ZUZENTZAILE  
ETA INTERPRETEEN ELKARTEA

## Literatura Unibertsala bilduma ITZULPEN LEHIAKETA 2006

### Proiektuak aurkezteko epea

Epea **2006ko ekainaren 15ean** amaituko da, eguerdiko 12ak baino lehen, eta EIZIE elkartearen egoitzara (Zemoria 25, behea - 20013 Donostia) bidali behar dira itzulpenak.

### Parte hartzeko baldintzak

Lehiatzaile orok obra baterako edo gehiagotarako itzulpen-proiektuak aurkezten ahalko ditu, bakoitzari bere lema eta gutunazal itxia erantsiz (ikus itzulgaien zerrenda).

### Aurkeztu beharrekoak

10 orrialdeko lagina aurkeztu behar da euskaraz, lau kopiatan eta orri zenbakituetan. Besterik aipatzen ez denean, liburuaren -ez hitzaurrearen- hasierako orriak itzuli behar dira (12 tamainako letra, lerro arteko espazioa 1,5).

Itzulpena egiteko erabilitako jatorrizko liburuaren fotokopiak (10 orrialdeko laginari dagozkienak), lau kopiatan, eta bibliografi fitxa (jatorrizko titulua, edizioa, urtea, eta abar). Jatorrizko testua Internet saretik jasoa baldin bada, helbide zehatza adierazi behar da.

Itzulpen proiektu bakoitzak ezizena eramango du. Aparteko gutunazal itxi batean itzultzailearen izen-deiturak, helbidea, telefonoa, posta elektronikoa, sinadura eta nortasun agiriaren fotokopia emango dira, kanpoaldean itzulgaiaren titulua eta itzultzailearen lema edo ezizena adieraziz.

Itzulpen-proiektua postaz bidali nahi izanez gero, «Literatura Unibertsala» lehiaketarako dela adierazi behar da gutunazalean.

### Adjudikaziorako epaimahaia

Itzulgaiak nori esleitu, horretarako eratuko den epaimahai batek erabakiko du eta honela osatuko da: Eusko Jaurlaritzak izendaturiko itzulpen-munduko aditu bat, itzulpenen argitalpenak egingo duen argitaletxeak proposaturikoa, eta EIZIE elkarteak izendaturikoa. EIZIE elkarteak idazkari bat ere izendatuko du, hizpiderik eta botorik gabe arituko dena. Epaimahaiaren erabakia atzeraezina izango da.

### Oharrak

Esleituak izan diren proiektuen itzultzaileei soilik emango zaie epaimahaiaren erabakiaren berri, eta liburu osoa itzultzeko kontratua sinatuko dute EIZIEk eta itzultzaileak. Liburuak itzultzeko epea orri kopuruaren arabera da: 125 orri - 6 hilabete / 250 orri - urtebete / >250 - proportzioan kalkulatu da.

Itzulpenen bat obraren jatorrizko hizkuntzatik ez bada egin, gutxienez bi sorburu-hizkuntza erabili beharko dira, eta horiei dagozkien orrialdeen fotokopiak aurkeztu.

Argibide gehiago jasotzeko jo bulegoa@eizie.org helbidera edo 943 277 111 telefonora.

**Literatura Unibertsala bilduma**  
**ITZULPEN LEHIAKETA 2006**  
**Itzulgaien zerrenda**

<u>Idazlea</u>	<u>Izenburua</u>	<u>orriak</u>
ACHEBE, Chinua	Things fall apart	160
BRONTË, Emily	Wuthering heights	365
GORDIMER, Nadine	Burger's Daughter	425
HAWTHORNE, Nathaniel	Ipuinak ( <i>Wakefield</i> ) <sup>1</sup>	200
LOVECRAFT, H.P.	At the Mountains of Madness	145
MELVILLE, Herman	Benito Cereno <i>eta</i> Billy Bud <sup>2</sup>	220
O'CONNOR, Flannery	A good man is hard to find (and Other Stories) <sup>3</sup>	245
HUYSMANS, Joris-Karl	A rebours	230
KUNDERA, Milan	L'insoutenable légèreté de l'être <sup>4</sup>	325
MOLIÈRE	Le Tartuffe <i>eta</i> L'Avare <sup>5</sup>	130
PROUST, Marcel	Du côté de chez Swann	590
VILLIERS DE L'ISLE-ADAM	Contes Cruels ( <i>Vera</i> ) <sup>6</sup>	145
BACHMANN, Ingebor	Simultan <sup>7</sup>	210
BERNHARD, Thomas	Der Untergeher	160
ROTH, Joseph	Redetzkymarsch	405
SCHNITZLER, Arthur	Ipuin antologia <sup>8</sup>	175
BUZZATI, Dino	Il deserto dei tartari	220
BUFALINO, Gesualdo	Le menzogne della notte	180
PLATONOV, Andrei	Котлован ( <i>La excavación</i> )	150
SHOLOKHOV	Донские рассказы (Don-eko ipuinak) <sup>9</sup>	80
QUIROGA, Horacio	Ipuinak ( <i>La insolación</i> ) <sup>10</sup>	180
ROJAS, Fernando de	La Celestina	215
SABATO, Ernesto	El túnel	120
CLARIN, Leopoldo Alas	"Adios, Cordera" <i>eta</i> beste ipuin batzuk <sup>11</sup>	125
CARDOSO PIRES, Jose	Balada da praia dos caes	280
MACHADO DE ASSIS	On Casmurro	205
FOLE, Anxel	A lus do candil	115
CALDERS, Pere	Ipuinak ( <i>Aquí descansa Nevarés</i> ) <sup>12</sup>	245

## OHARRAK

\* Itzulpena jatorrizko hizkuntza ez den besteren batzuetatik egiten bada, sorburu hizkuntzei dagozkien tarifen batez bestekoa erabiliko da (orriko ordainak: gaztelania: 21 €; frantsesa, ingelesa, portugesa, italiara: 24 €; gainerakoak: 27 € )

- (1) Lehiaketarako *Wakefield* itzuliko da. Proiektua esleituz gero, ondoren adierazten diren ipuinek osatuko dute liburua: *The wives of the dead / Mr. Higginbotham's catastrophe / Alice Doane's appeal / Young Goodman Brown / Wakefield / The ambitious guest / The minister's black veil / Dr. Heidegger's experiment / Earth's Holocaust / The artist of the beautiful / The Great Stone Face / Ethan Brand.*
- (2) Lehiaketararako *Benito Cereno* liburuaren hamar orriak itzuli behar dira. Proiektua esleituz gero, bi obrak itzuli beharko dira.
- (3) Lehiaketarako *A Late Encounter with the Enemy* itzuliko da.
- (4) Salbuespen gisa, sorburu hizkuntza frantsesa izango da.
- (5) Lehiaketarako *Le Tartuffe* obraren lehen hamar orriak itzuli behar dira. Proiektua esleituz gero, bi obrak itzuli beharko dira.
- (6) Lehiaketarako *Vera* itzuliko da. Proiektua esleituz gero, ondoren adierazten diren ipuinek osatuko dute liburua: *Vera / La torture par l'espérance / L'aventure de Tse-i-la / L'enjeu / La Reine Ysabeau / Le convive des dernières fêtes / Sombre récit, conteur plus sombre / Les demoiselles de Bienfilâtre / La Machine à gloire / Le diner le plus beau du monde / L'Affichage céleste / L'Inconnue / L'Intersigne.*
- (7) Lehiaketarako *Simultan*-en lehen hamar orriak itzuli beharko dira. Proiektua esleituz gero, ondoren adierazten diren ipuinek osatuko dute liburua: *Simultan / Ihr glückliches Augen / Probleme Probleme / Das Gebell / Drei Wege zum See.*
- (8) Lehiaketarako *Das Schicksal des Freiherrn von Leisenbohg* itzuliko da. Proiektua esleituz gero, horrez gain, ondoren adierazten diren ipuinek osatuko dute antologia: *Der Witwer / Die Toten schweigen / Der blinde Geronimo und sein Bruder / Die Fremde / Die griechische Tänzerin / Wohltaten, still und rein gegeben / Die Weissagung / Der tote Gabriel / Der Tod des Junggesellen / Ich*
- (9) Lehiaketarako *Шибалково семя (Shibalok-en hazia) eta Председатель РевВоенСовета республики (Errepublikako presidentea)* itzuliko dira.
- (10) Lehiaketarako *La insolación* itzuliko da. Proiektua esleituz gero, ondoren adierazten diren ipuinek osatuko dute antologia: *La insolación / Los buques suicidantes / A la deriva / Los mensú / La gallina degollada / El almohadón de vigas / Una bofetada / El desierto / Un peón / Juan Darien / Los desterrados / Van-Houten / Tacuara-Mansión / El hombre muerto / Los destiladores de naranja / El conductor del rápido / El hijo.*
- (11) Lehiaketarako "Adios, Cordera" ipuina itzuliko da. Proiektua esleituz gero, horrez gain, beste hauek ere osatuko dute ipuin-bilduma: *El diablo en Semana Santa / Mi entierro / La Ronca / El dúo de la tos / El sustituto / El entierro de la sardina / Dos sabios / Pipá.*
- (12) Lehiaketarako *Aquí descansa Nevares* itzuliko da. Proiektua esleituz gero, ondoren adierazten diren ipuinek osatuko dute antologia: *Aquí descansa Nevares / El desert / El principi de la saviesa / La verge de les vies / Reportatge de l'esbós de la mort / Demá a les tres de la matinada / El sistema Robert Hein / El batalló perdut / Les parets i les barbes / L'espiral / Ruleta russa / Nosaltres dos / Zero a Malthus.*